# Xedapen Orokorrak

**HERRIZAINGO SAILA**

**1350**

55/2010 DEKRETUA, otsailaren 23koa, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluarena.

Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteari buruzko ekainaren 19ko 4/2008 Legez sortzen da Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua, zeinaren xedea baita terrorismoaren biktimen partaidetza bideratzea haiei eragiten dieten gai guztietan, bai eta administrazio publikoei arlo honetako politika zehatzak abiaraz ditzatela proposatzea ere.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluari dagokionez, 4/2008 Legeko 6.5 artikuluan xedatutakoa garatzea da dekretu honen helburua.

Hori dela bide, Herrizaingoko sailburuak proposatuta, behar diren txostenak eman aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko otsailaren 23ko batzarrean eztabaidatu eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Dekretuaren xedea.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren osaera, izendapen sistema, funtzionamendu erregimena eta eginkizunak arautzea da dekretu honen helburua.

***2. artikulua.***– Izaera

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua organo kolegiatua da, zeinen helburua terrorismoaren biktimen arloan partaidetza, lankidetza eta aholkularitza eskaintzea baita.

***3. artikulua.***– Atxikipena eta egoitza.

Terrorismoaren biktimei sorospena eskaintzeko arloan eskumena duen organoa txertatzen den Sailari atxikiko zaio Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua, nahiz eta ez den bere egitura organikoan txertatuko. Sail horrek Vitoria-Gasteizen dituen bulegoetan izango du egoitza. Batzarrak, hala ere, EAEko edozein tokitan egin ahal izango ditu.

***4. artikulua.***– Eginkizunak.

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izaera orokorraz ematen dituen xedapen

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**1350**

DECRETO 55/2010, de 23 de febrero, del Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo.

La Ley 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo, crea el Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo cuyo objeto será canalizar la participación de las víctimas del terrorismo en todas aquellas cuestiones que les incumban, y proponer a las administraciones públicas la puesta en marcha de políticas concretas en este campo.

El objetivo del presente Decreto es desarrollar la Ley 4/2008 en lo relativo al Consejo Vasco de de Participación de las Víctimas del Terrorismo, atendiendo al mandato del artículo 6.5 de la propia Ley.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo sido previamente emitidos los informes correspondientes, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de febrero de 2010,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto del Decreto.

Es objeto del presente Decreto regular la composición, sistema de designación, régimen de funcionamiento y las funciones del Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo.

***Artículo 2.***– Naturaleza.

El Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo es un órgano colegiado de participación, cooperación y asesoramiento en el ámbito de asistencia a las víctimas del terrorismo.

***Artículo 3.***– Adscripción y sede.

El Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo está adscrito al Departamento en cuya estructura se integre el órgano competente en materia de asistencia a las víctimas del terrorismo, sin integrarse en la estructura jerárquica del mismo, y tiene su sede en las dependencias de dicho Departamento situadas en Vitoria-Gasteiz. No obstante, podrá celebrar sesiones en cualquier otro lugar del territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

***Artículo 4.***– Funciones.

a) Conocer los proyectos de disposiciones de carácter general de la Administración General de la

proiektuen berri izan, betiere terrorismoaren biktimak sorosteari eragiten badiote.

b) Terrorismoaren biktimen elkarteen eta euskal administrazio publikoen arteko harremanak bideratu terrorismoaren biktimen kolektiboari eragiten dion arlo orotan.

c) Terrorismoaren biktimen arloan jardun ohi duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak eta dirulaguntzak banatzeko irizpideak proposatu.

d) Bidezkotzat jotako ekimen eta proposamenak aurkeztu EAEko administrazio publikoei, terrorismoaren biktimentzako politika publikoetan aurrera egin eta hobetze aldera.

e) Indarreko legeek egotzitako gainerakoak.

***5. artikulua.***– Osaera.

1.– Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluko kide izango dira, lehendakari izango denaz gain, honako hauek:

a) Administrazio Publikoetatik:

– Terrorismoaren biktimak sorosteko eskumena duen organoa txertatzen den Saileko sailburua.

– Terrorismoaren biktimak sorosteko eskumena duen organoko titularra.

– Organo horren ordezkaria den kide bat, Kontseiluko idazkaria ere izango dena.

– Bi kide, EUDEL EAEko Udalen Elkartearen edo udalen ordezkaritzarik nagusiena duen elkartearen ordezkariak.

b) Gizarte Zibilaren aldetik:

– Hiru kide, EAEn egoitza edo ordezkaritza duten terrorismoaren biktimen elkarteen ordezkariak.

– Kide bat, terrorismoaren biktima bati lotuta sortutako EAEko fundazioen ordezkaria.

– Kide bat, EAEko bake elkarteen ordezkaria.

2.– Izendapena eta kargua uztea.

a) EAEko administrazio publikoetako ordezkariak, non eta ez diren kargu izatearen ondorioz –eta horien ordezkoak– administrazio bakoitzak proposatuko ditu, eta Kontseilua atxikita dagoen Saileko titularrak izendatuko ditu.

Gizarte zibilaren arloko erakundeen ordezkari diren kideak –eta horien ordezkoak- erakundeok proposatuko dituzte, terrorismoaren biktimak sorosteko eskumena duen organoaren eta erakundeon arteko adostasunez ezarritako irizpideen arabera. Era horretan proposatutako ordezkariak Kontseilua atxikita da-

Comunidad Autónoma del País Vasco, que afecten al ámbito de la asistencia a las víctimas del terrorismo.

b) Canalizar las relaciones entre las asociaciones de víctimas del terrorismo y las administraciones públicas vascas con respecto a cualquier cuestión que afecte al colectivo de víctimas del terrorismo.

c) Proponer al Gobierno Vasco criterios de reparto de ayudas y subvenciones públicas destinados a organizaciones y asociaciones que desempeñen su actividad habitual en el ámbito de las víctimas del terrorismo.

d) Trasladar a las administraciones públicas vascas las iniciativas y propuestas que considere oportunas en orden al avance y mejora de las políticas públicas destinadas a las víctimas del terrorismo.

e) Cualesquiera otras que le atribuya la legislación vigente.

***Artículo 5.***– Composición.

1.– Son miembros del Consejo Vasco de Participación de las Víctimas del Terrorismo, además de la persona que ostente su presidencia, los siguientes:

a) Por parte de las Administraciones Públicas:

– El Consejero o la Consejera del Departamento en cuya estructura se integre el órgano competente en asistencia a las víctimas del terrorismo.

– La persona titular del órgano competente en asistencia a las víctimas del terrorismo.

– Una o un vocal en representación del citado órgano, que ejercerá, además, la secretaría del Consejo.

– Dos vocales en representación de la Asociación de Municipios Vascos EUDEL, o de aquélla que ostente la representación mayoritaria de los mismos.

b) Por parte de la Sociedad Civil:

– Tres vocales en representación de las asociaciones de víctimas del terrorismo con sede o delegación en el País Vasco.

– Una o un vocal en representación de las fundaciones vascas creadas en relación con una víctima del terrorismo.

– Una o un vocal en representación de las asociaciones pacifistas vascas.

2.– Nombramiento y cese.

a) Los representantes de las administraciones públicas vascas, salvo los que lo sean por razón de sus cargos, y sus suplentes serán propuestos en el seno de cada una de ellas, y nombrados por la persona titular del Departamento al que esté adscrito el Consejo.

Los vocales en representación de las organizaciones del ámbito de la sociedad civil, así como sus suplentes, serán propuestos por ellas mismas de conformidad con los criterios establecidos de común acuerdo entre dichas organizaciones y el órgano competente en asistencia a las víctimas del terrorismo. Los repre-

goen Saileko titularrak izendatuko ditu bi urterako. Berriro ere aukeratu daitezke.

b) Kargu izatearren badira kide, kargu izateari uzten diotenean utziko diote kide izateari; gainerako kideak, eurek ordezkatzen dituzten erakundeak edo administrazioak proposatuta kendu ahal dira kargutik, eta, ondorioz, euren ordezkoak proposatu behar dira.

***6. artikulua.***– Lehendakaritza.

Ospe handiko pertsona bat izango da Kontseiluko lehendakari, bere kideen artetik adostasunez izendatuta. Lehendakariak ebatziko ditu berdinketak bere botoz, erabakiak hartze aldera. Lehendakaria ez egotea, gaixo izatea edo bere kargua hutsik egotea gertatuz gero, Kontseiluaren erabakiz aukeratuko da bere ordezkoa.

Kontseiluaren lehendakaritzak, bere ekimenez edo kideek hala eskatuta, adituek edo beste norbaitzuek noiz edo noiz bileretan parte hartzeko eska dezake, uste bada euren iritzia interesgarria izan daitekeela aztertzen diren gaietan. Hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botorik.

***7. artikulua.***– Bileren aldizkakotasuna.

Kontseiluak ohiko bilera egingo du gutxienez urtean behin; eta apartekoa, bere egintkizunetarako beharrezkoa dela uste duen oro. Ekimena lehendakariarena edo kideen hiru laurdenarena izango beharko da.

***8. artikulua.***– Deialdia.

Kontseilua lehendakariaren aginduz deituko da, gutxienez bost egun lehenago, non eta ez dauden presako deialdia egiteko arrazoiak, izan ere, orduan, deialdia gutxienez hogeita lau ordu lehenago egin beharko da.

***9. artikulua.***– Eraketa.

Kontseilua balio osoz eratzeko, hau da, bilkurak egiteko, lehendakariak eta idazkariak bilkuran egon behar dute, edo, bestela, beren ordezkoek, eta, gutxienez, kideen erdiek egon beharko dute.

***10. artikulua.***– Erabakiak hartzea.

Botoen gehiengoz hartuko dira erabakiak. Hartutako erabakiak aktetan jasota utziko ditu idazkariak.

***11. artikulua.***– Gastuak.

Kontseiluko kideek ez dute dirurik jasoko. Hala ere, Kontseiluan parte hartzeak eragiten dituen gastuak ordain dakizkieke –aldez aurretik justifikatuta–, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko otsai-

sentantes así propuestos serán nombrado por la persona titular del Departamento al que esté adscrito el Consejo para un período de dos años, siendo posible su reelección.

b) Con excepción de quienes lo sean por razón de su cargo, que cesarán automáticamente con la pérdida de la condición en cuya virtud fueron designados, los miembros del Consejo pueden ser cesados a propuesta de la organización o administración a la que representan, debiéndose proponer a continuación a quienes vayan a reemplazarles.

***Artículo 6.***– Presidencia.

El Consejo estará presidido por una persona de reconocido prestigio, nombrada en su seno por consenso de las administraciones públicas y de la sociedad civil, quien dirimirá con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos. En caso de vacante, ausencia o enfermedad, el Presidente sustituto será designado por acuerdo del Consejo.

La presidencia del Consejo, a iniciativa propia o a petición de sus miembros, podrá solicitar la participación en las sesiones, con carácter puntual, de personas expertas o cuya opinión interese ser oída en los temas que fueren objeto de discusión, que asistirán con voz pero sin voto.

***Artículo 7.***– Periodicidad de las reuniones.

El Consejo se ha de reunir en sesión ordinaria al menos una vez al año, y en sesión extraordinaria siempre que sea necesario para el ejercicio de sus funciones, a iniciativa de la presidencia o cuando lo solicite al menos un tercio de sus miembros.

***Artículo 8.***– Convocatoria.

El Consejo será convocado por orden del Presidente con una antelación mínima de cinco días salvo que concurran circunstancias que hagan precisa su convocatoria con carácter urgente, en cuyo caso la convocatoria deberá hacerse con una antelación mínima de veinticuatro horas.

***Artículo 9.***– Constitución.

Para la válida constitución del Consejo, a efectos de la celebración de sesiones, se requerirá la presencia del Presidente o Presidenta, el Secretario o la Secretaria, o en su caso de quienes les sustituyan, y la de la mitad al menos de sus miembros.

***Artículo 10.***– Adopción de Acuerdos.

Los acuerdos serán adoptados por mayoría de votos. El Secretario hará constar en las oportunas actas los acuerdos adoptados.

***Artículo 11.***– Gastos.

Los miembros del Consejo no recibirán retribución alguna por dicha condición, pero se les abonará, en su caso y previa justificación, los gastos que su asistencia al Consejo les genere, de conformidad con

laren 2ko 16/1993 Dekretuaren –abenduaren 19ko 267/2000 Dekretuz aldatutakoaren– arabera.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Dekretu honetan xedatu gabekoetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. Tituluko II. Kapituluko organo kolegiatuei buruzko xedapenak aplikatuko zaizkio Kontseiluaren funtzionamenduari.

***Bigarrena***.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko otsailaren 23an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio, modificado por el Decreto 267/2000, de 19 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Con carácter supletorio, se aplicarán al funcionamiento del Consejo las disposiciones referentes a los órganos colegiados del capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda***.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de febrero de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.